



## DBH-KO ARAUTEGIA

### OINARRIZKO ARAUAK

#### 1. PUNTUALTASUNA

Ikastetxeko atek 8:20an irekiko dira. Klaseak 8:30etan hasiko dira, txirrinak jotzen duenean, eta patiotik geletara sartzeko atea itxiko da 8:30ean. Berandu iristen diren ikasleak patioan geratuko dira hurrengo saioa hasi arte, eta ez etortze bezala hartuko da. Arratsaldez ere berdin jokatuko dugu: klaseak 14:10etan hasiko dira, txirrinak jotzen duenean.

Ikastetxera sartzeko atek itxita egongo dira eskola orduetan.

**Klasea hasi ondoren ikaslea gelan irakaslea baino beranduago sartzen bada, "atzerapena" izango da eta ezin da gelan sartu, zaintzako irakaslearekin geratu beharko da. Bost atzerapen metatuz gero tutoreak familiari jakinaraziko dio eta zuzendaritzari ohartarazi. Ikaslea bost egunetan atsedendian lana berreskuratu beharko du.**

Justifikatu gabeko puntualtasun falta jokabide desegokia da.

#### 2. BAIMENAK

##### 2.1. IKASTETXETIK ATERATZEKO

Ikasleak ikastetxetik irten ahal izateko gurasoek edo legezko tutoreak etorri beharko du bere bila, edo aldez aurretik ikasleak hauen baimena aurkeztu beharko du agendan idatzita (ez du balio telefonoz deitzea).

##### 2.2. GELATIK ATERATZEKO

Klase orduetan pasabideetatik ez da ikaslerik egongo, eta komunak atsedendian bakarrik erabiliko dira.

Ikasleari gelatik irteteko baimena emango zaio ondoezik edo gaixo balego, zuzendaritzara joan beharko da, eta beharrezkoa balitz familiari abisua emango zaio.

## 2.3. MEDIKAZIOA

Ikasle batek sendagairen bat hartu behar badu etxetik ekarri beharko du, beti ere gurasoek baimentzen duten oharrarekin. Ikastetxean ez da medikaziorik emango.

## 3. EZ ETORTZE ETA KANPORAKETAK

Irakasleek astero beraien ikasleen atzerapen, ez etortze eta kanporaketak sartu behar dituzte Inikan.

Tutoreak astero bere taldekoen atzerapen, ez etortze eta kanporaketak kontrolatuko ditu eta Inikan atzerapen eta ez etortze horiek justifikatuta dauden ala ez islatuko du.

**Ez etortzeak:**

Familiak 3 eguneko ez etortzeak justifikatu ahal izango ditu. Hiru egun baino gehiagoko ez etortzeak medikuaren edo beste agiri ofizialen bidez justifikatu beharko dira.

Ikasleak ez etortzeen justifikazioak tutoreari emango dizkio agendaren bidez, ikaslea itzuli eta astebeteko epean gehienez; epea bukatu ondoren ez dira onartuko. Justifikatu gabetzat hartuko dira gurasoek edota legezko tutoreek idatziz eta ikastetxean onartutako arauen arabera arrazoitu gabeko hutsegiteak. Ez dira onartuko justifikazio bezala autobusa galtzea, **lo gelditzea**, ...

Ikasle batek justifikatu gabeko 5 ez etortze pilatu dituenean tutoreak gurasoei jakinaraziko die eta idatziz adierazi zuzendaritzakoei txantilo baten bidez.

**Kanporaketak:**

Irakasleak ikasle bati jarritako edozein hutsegite mota, kanporaketak barne, diziplina partean azalduta utziko du. Partearen kopia bat tutoreari emango dio eta beste bat zuzendaritzan utziko du. Hutsegitea jokabide desegokia denean irakasleak partean azaldu behar du zein neurri zuzentzaile ezarri dion eta ikasleak betetzen duen ardura hartuko du.

Kanporatutako ikasleei lana eman behar zaie, zaintzako irakaslearekin egin dezaten.

**Tutoreak bere taldeko ikasleen kanporaketen kontrola eramango du. Ikasleak hiru diziplina parte metatzen dituenean zuzendaritzak gutuna bidaliko du etxera ikaslearen bitartez, eta tutoreak telefonoz abisua emango die. Honen ondoren ikaslea gurasoekin etorri beharko da klasera berriz sartu ahal izateko..**

## 4. BIZIKIDETZA

## 4.1. IKASTETXEAN

- a) Denok bete behar dugun arau nagusia pertsona eta norberaren gauzekiko begirunea da, horregatik ez da onartuko ikasleen arteko edo irakasleei errespetu faltarik.
- b) Hezkuntz elkarteko kide guztiok ikastetxeko instalazio eta hornikuntzak zaintzeko ardura dugu, bai eta jolastoki eta beste leku guztien txukuntasuna ere. Ikasle batek nahita kalteren bat eragingo balu bere gain hartuko du dagokion garbiketa edo konponketa.
- c) Derrigorrezkoa da janzkera egokia erabiltzea ( ikaslearen arreta eta ezagupidea oztopatzen duen edozein osagairen erabilera saihestuko da: biserak, kapelak,...)
- d) Debekatuta dago edozein aparailu elektronikoren erabilera: mugikorrak, ... Araua betetzen ez bada, irakasleak diziplina partea jarriko dio eta ikasleak aparailua zuzendaritzan utziko du; aste horretako ostiraleko azken ordua bukatzean itzuliko zaio. Errepikatzen bada zuzendaritzan gordeko da ikasturtea amaitu arte.
- e) Debekatuta dago tabakoa, alkohola eta beste edozein droga kontsumitzea.

## 4.2. IKASGELAN

- a) Jokabide desegokirik ez da onartuko: jatea, edatea, edo klaseko martxa eragozten duen edozein ekintza. Araua betetzen ez bada irakasleak diziplina partea jarri behar du.
- b) Egunaren amaieran gela txukun geratu behar da, behar bezala garbitu ahal izateko. Horretarako ikaslea bere gauzak ordenatu eta gordetzeaz arduratuko da. Araua betetzen ez bada taldeak gela txukundu beharko du hurrengo egunean.
- c) **Ikasleak beren gelako arduradunak dira. **Ikasle batek nahita kalteren bat eragingo balu bere gain hartuko du dagokion konponketa. Kaltearen arduraduna irtengo ez balitz gela osoak hartuko du bere gain horren ardura.****
- d) Jolasgaraiko aurreko klasea eta goizeko azkena ematen duten irakasleek ikasgelak giltzaz itxiko dituzte, lapurretak ekiditzeko.
- e) Ikasleek kutxatilak izango dituzte eta beraien ardura izango da material guztia han gordetzea eta kandadu batekin ixtea. Edozein arazoa egongo balitz, komenigarria izango litzateke tutoreak kandadu horren giltzaren kopia bat izatea.

## 4.3. JOLASTOKIAN

- a) Jolasgaian hiru gune desberdin erabil daitezke: jolastokia, areto nagusia eta liburutegia. Ikasleek patioko jolas materialak atezainari eta areto nagusikoak zaintzan dagoen irakasleari eskatuko dizkie, eta dagokion koadernoan izena apuntatu. Izena ematen duen ikaslea jolasgaraia bukatzean materiala itzultzeaz arduratu behar da.
- b) Komunak irekita egongo dira. Jolasgaraia amaitu baino 5 minutu lehenago zaintzako irakasleak ateak itxiko ditu,
- c) Debekatuta dago edozein ontzi, azal, bilgailu, lurrera botatzea.

## 5. ZAINTZAK

- a) Zaintza irakasle bat egongo da pasabide bakoitzean. Ikasleak geletan egoteaz arduratuko da. Irakasle gelan irakasleen hutsegiteen koadernoan dago, eta bertan azalduko da nor falta den eta zein lan utzi duen. Zaintza irakasleak bertan sinatuko du.
- b) Zaintza irakasleak ordezkapenik egin behar ez badu pasabidean geldituko da txirrina jo arte.
- c) Goizeko lehen orduan zaintza duten irakasleak beren pasabideko gela guztietatik pasako dira, eta falta diren ikasleen zerrenda egingo dute. Zerrenda hau atezainari emango diote.
- e) Ikasgelatik kanporatutako ikasleek zaintzan egiteko lana eraman beharko dute.
- f) Jolasgaraietan bi irakasle egongo dira gutxienez. Bata jolastokiaz arduratuko da eta bestea areto nagusian egongo da.

## 6. HUTSEGITE MOTAK

Ikasleen hutsegiteak hiru motatakoak dira:

### 6.1. JOKABIDE DESEGOKIAK

Adibidez:

- a) Justifikatu gabeko hutsegite eta puntualtasun hutsegiteak
- b) **Ikastetxeko instalazioei, ikastetxeko materialari edo kideen gauzei narridurak eragitea.**
- c) **Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, baita gainerako langileek emandako aginduei jaramonik ez egitea ere**
- d) **Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edozein matatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.**
- e) **Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea.**
- h) Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea, edo besteei norberarena kopiatzen erraztea.

### 6.2. BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK

Adibidez:

- a) Kide bakarreko aginte-organoen edo irakasleen edo langileen aginduak ez betetzea, disziplinarik eza agertzen bada, edo irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.
- b) Ikaskideen edo gainontzeko kideen aurkako mehatxuak edo irainak.
- c) Azterketa- ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea.
- d) Noten buletineta edo gurasoentzako edo legezko ordezkarioentzako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea eta dagokien hartzaileei ez ematea.
- e) Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei
- f) Pertsonak ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea
- g) Ordena nahasten duten portaerak eskolako jangelan.
- h) Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean

### 6.3. BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK

Adibidez:

- a) Gobernu-organoekiko edo irakasleekiko disziplinarik ezako ekintza edo obedientzia-ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita kideen aurkako adierazpen oso laido garri edo iraingarriak ere.
- b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazioaren arrazoia edozein izanik
- c) Jazarpen sexista
- d) Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa
- e) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo horietan paate hartzea, lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.

Informazio gehiago: Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko dekretua aplikatzeko gida (2009)

## 7. NEURRI ZUZENTZAILEEN XEDAPEN OROKORRAK

1. Irakasle guztiek eskumena dute berehala zuzentzeko ikasleen jokabide desegokiak, zaintzapean dauzkatenean gelan edo ikastetxeko beste instalazio batzuetan, edo handik

kanpo.

2. Irakasle guztiek, beren aurrean bizikidetzaren kontrako jokabide bat gertatzen bada, edo bizikidetzari kalte larria egiten diona, eskumena daukate ikaslea unean bertan hitzez ohartarazteko, bai eta zuzendariarengana bidaltzeko ere, edo ikasketa-buruarengana, edo une horretan ikastetxearen ardura bere gain duen zuzendaritza-taldeko kide batengana
3. Zuzendariak du bizikidetzaren kontrako jokabideak edo hari kalte larria egiten diotenak zuzentzeko eskumena.
4. Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak du zuzendariaren erabakiak berraztertzeko eskumena